

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara eta Kultura Saila**

**Euskara eta Kulturako foru diputatuaren 904/2019 FORU AGINDUA, martxoaren 14koa. Honen bidez, kultur arloan, 2019. urteko ekitaldirako, zenbait beka eta laguntzen eskabideak ebaluatzeaz arduratuko den epaimahaiko kideak izendatzen dira. Hona hemen beka eta laguntza horiek: arte plastikoen eta ikusmen-arteen, arte dramatikoaren, musikaren eta dantzaren modalitateetarako beka eta arte dramatikoaren, musikaren eta dantzaren modalitateetarako laguntzak.**

Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 20ko 147/2018 Foru Dekretuaren bidez, kultur arloan, 2019. urteko ekitaldirako, oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira, batetik, arte plastikoen eta ikusmen-arteen, arte dramatikoaren, musikaren, eta dantzaren modalitateetan beka emateko, eta, bestetik, bakarrik arte dramatikoaren, musikaren, eta dantzaren, modalitateetan laguntzak emateko.

Aipatu den foru dekretuko 10. oinarriak honako hau ezartzen du: Beka eta laguntzen eskaerak aztertu eta ebaluatzeko, Euskara eta Kulturako foru diputatuak foru agindu bidez izendatutako kideek osatutako epaimahai bat eratuko da. Izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44 artikuluan ezarritakoa beteko da.

Oinarri horretan xedatutakoa aintzat hartuta eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 39.i) eta 67.1 artikuluek, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak, Euskara eta Kulturako Foru Sailaren Egitura Organikoari buruzko Araudia onartu zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 foru dekretuak eta gainontzeko baterako xedapenek Euskara eta Kulturako Foru Saileko titularrari ematen dizkioten eskumenak kontuan harturik, eta izan daitezkeen abstentzio eta/edo errefusateen ondorioetarako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko 23 eta 24. artikuluetan xedatutakoaren arabera, honako hau:

XEDATZEN DUT:

**Lehenengoa**

Epaimahaietako kideak izendatzea, batetik, 2019. urteko ekitaldirako kultur arloko beka eta laguntzetarako aurkezten diren eskabideak ebaluatzeko; bestetik, dagozkien proba praktikoa (ezarrita dagoen modalitateetan) ebaluatzeko zein beka edo laguntzak emateko proposamenak egiteko. Honako hauek izango dira kide horiek:

— Arte Plastikoak eta Ikusmen-arteen Epaimahaia:

- Epaimahaiburua:
  - Andoni Iturbe Amorebieta. Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendari Nagusia.
- Ordezko epaimahaiburua:
  - Ana de Castro Rubalcaba. Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendari Nagusia.
- Epaimahaiko kideak:
  - Odon Sánchez del Val. Rekalde Aretoko Teknikaria.
  - Lucía Agirre López. Komisario artistikoa.
  - Elena Mendizabal Eguialde. Eskultura irakaslea.



- Idazkaria titularra, botorik gabe:
  - David Sobrado Silva. Kultur jarduerak zabaltzeko teknikaria.
- Ordezko idazkaria, botorik gabe:
  - Montserrat Petralanda Gorrotxategi. Argitalpenen eta Kultura Zabalkundearen Atalako Burua.
- Arte Dramatikoko Epaimahaia:
  - Epaimahaiburua:
    - Andoni Iturbe Amorebieta. Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendari Nagusia.
  - Ordezko epaimahaiburua:
    - Ana de Castro Rubalcaba. Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendari Nagusia.
  - Epaimahaiko kideak:
    - Itziar Lazkano Setién. Aktriza.
    - Ramón Barea Monge. Aktore eta zuzendaria.
    - Ana López Asensio. Barakaldo Antzokiko zuzendaria.
    - José Pedro Ibarrola Bellido. Artista eta eszenografian aditua.
  - Idazkaria titularra, botorik gabe:
    - Montserrat Petralanda Gorrotxategi. Argitalpenen eta Kultura Zabalkundearen Atalako Burua.
  - Ordezko idazkaria, botorik gabe:
    - David Sobrado Silva. Kultur jarduerak zabaltzeko teknikaria.
- Musikako Epaimahaia:
  - Epaimahaiburua:
    - Andoni Iturbe Amorebieta. Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendari Nagusia.
  - Ordezko epaimahaiburua:
    - Ana de Castro Rubalcaba. Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendari Nagusia.
  - Epaimahaiko kideak:
    - Luis Alberto Requejo Tapia. Klarinete jolea.
    - Olatz Saitua Iribar. Abeslaria.
    - Maite Aurrekoetxea Vitoria. Orkestra zuzendaria
    - Javier Martínez Campos. Biolontxelo jolea.
  - Idazkaria titularra, botorik gabe:
    - Montserrat Petralanda Gorrotxategi. Argitalpenen eta Kultura Zabalkundearen Atalako Burua.
  - Ordezko idazkaria, botorik gabe:
    - David Sobrado Silva. Kultur jarduerak zabaltzeko teknikaria.
- Dantzako Epaimahaia:
  - Epaimahaiburua:
    - Andoni Iturbe Amorebieta. Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendari Nagusia.
  - Ordezko epaimahaiburua:
    - Ana de Castro Rubalcaba. Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendari Nagusia.
  - Epaimahaiko kideak:
    - Jon Ugarriza Rodríguez. Koreografoa
    - Leyre Castresana Martín. Dantzaria.



- Fabián Thomé Duten. Dantzaria.
- Adriana Álvarez Rui-Wamba. Dantzaria.
- Idazkaria titularra, botorik gabe:
  - Montserrat Petralanda Gorrotxategi. Argitalpenen eta Kultura Zabalkundearen Atalako Burua.
- Ordezko idazkaria, botorik gabe:
  - David Sobrado Silva. Kultur jarduerak zabaltzeko teknikaria.

## **Bigarrena**

Foru agindu hau interesdunei jakinaraztea, baita Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ekin-tzako Zerbitzuari ere, dagozkion ondorioak izan ditzan.

## **Tercero**

Agintzea Foru Agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

## AZKEN XEDAPENA

### **Azken Xedapen Bakarra. – Indarrean jartzea.**

Honako foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean

Bilbon, 2019ko martxoaren 14an.

Euskara eta Kulturako foru diputatua,  
LOREA BILBAO IBARRA